Murgian, bi mila eta hamazortziko urriaren hamazortzian, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA JN. (EAJ-PNV)

Bilkura hasi baino lehen, bertaratutakoek, zutik, minutu bateko isilunea gorde dute bere egunean Udal honetako zinegotzi izan zen Jesus Mª de la Torre Viguri jaunaren heriotzagatik, emandako zerbitzuak eskertuz.

Ondoren, arratsaldeko zazpietan bilkurari ekin, Lehendakaritzaren aginduz

En Murgia a dieciocho de octubre de dos mil dieciocho, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DON JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)
DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA (EAJ-PNV)

Antes del inicio de la sesión, las personas presentes, en pie, guardan un minuto de silencio por el fallecimiento de D. Jesús Mª de la Torre Viguri, quien fuera en su día Concejal de este Ayuntamiento, agradeciéndole los servicios prestados.

A continuación, se procede a la celebración de la sesión, siendo las

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ *azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

diecinueve horas y por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

**1.- APROBACION DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

Vista el acta de la sesión anterior, la Corporación por unanimidad acuerda aprobarla.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Alkatetzak 2018.09.10eko 250. zk.ko dekretutik 2018.11.09ko 311.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: Gorbeiako Koadrilari azaltzea udalak interesa duela ingurumen arloko laguntza teknikoaren zerbitzua aurreko urteko orduekin eman diezaiola. Obra-baimena ematea: Jugoko Batzarrari, Jugatxiko Ermitako erretena konpontzeko; Ametzaga Zuiako Batzarrari, herrian edukiontzi-estalkiak jartzeko; Sarriako 99/5 lursailean dagoen etxebizitzari atxikitako garajearen eraikuntza-lanak hasteko luzamendua ematea; Murgiako 73/2 lursailean igerilekuaren ordezkapen-lanak legeztatzeko baimena; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Murgiako BHIko eskailera-kaxako sabai aizuna aldatzeko; Ametzaga Zuiako 72/1 lursailean lorategiko arrapala handitzeko; Murgiako 235/7 lursailean dagoen etxebizitzako terraza konpontzeko; Altubeko 673/3 lursailean dagoen etxebizitzako sukaldea zaharberritzeko; Murgiako Bigiliano kaleko 4. zenbakian dagoen eraikineko argi-zuloa konpontzeko; Murgiako Bigiliano kaleko 6. zenbakian dagoen eraikineko argi-zuloa konpontzeko; Bitorianoko 156/2 lursailean egurrezko txabola aurrefabrikatua eraikitzeko; Ametzaga Zuiako 106/1 lursailean familia bakarreko etxebizitza eraiki eta kanpoaldeko urbanizazioa egiteko. Giliernako UE-1 exekuzio-

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía, desde el decreto Nº 250 del 10.09.18 al 311 del 09.11.2018, referentes a la solicitud a la Cuadrilla de Gorbeialdea del interés del Ayuntamiento en el servicio de asistencia técnica en materia de medioambiente con las horas del año anterior, concesión de licencia de obras a la Junta. de Jugo para reponer el canalón de la Ermita de Jugatxi, a la Junta. de Ametzaga Zuia para la instalación de cubre-contenedores en la localidad, concesión de prórroga para inicio de las obras de construcción de garaje anexo a vivienda en la parcela 99/5 de Sarría, licencia para la legalización de obras de sustitución de piscina en la parcela 73/2 de Murgia, al Departamento de Educación del Gobierno Vasco para cambiar el falso techo de la caja de escalera del IES de Murgia, para ampliar la rampa del jardín de la parcela 72/1 de Ametzaga Zuia, para arreglar la terraza de la vivienda situada en la parcela 235/7 de Murgia, para rehabilitar la cocina de la vivienda sita en la parcela 673/3 de Altube, para el arreglo de la claraboya del edificio de Biguillano 4 de Murgia, para el arreglo de la claraboya del edificio de la C/Biguillano 6 de Murgia, para la construcción de una caseta prefabricada de madera en la parcela 156/2 de Bitoriano, para la construcción de una vivienda unifamiliar junto con la urbanización exterior de la parcela 106/1 de Ametzaga

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

unitatearen HJP behin betiko onartzea. Murgiako UE-1 exekuzio-unitatearen Hirigintza Hitzarmena behin betiko onartzea. Altubeko 1310/1 lursailean lanak baimenik gabe egitearen ondoriozko hirigintza-irregulartasunen espedientea abiaraztea. Murgiako 610/6 lursailaren titularrari errekerimendua, eremu publikora sartzen den lursaileko zuhaitzak mantentzeko. Murgiako Domingo de Sautu kaleko 24. zenbakian dagoen eraikineko estalkia zaharberritzeko lanen okupazio-baimena ematea. Kontratu txikien esleipena: OAMIPeko ordutegi luzatuaren zerbitzua 2018/19 ikasturtean, begiraleko 6.316 €; udal-liburutegiaren kudeaketa 1.275 € gehi BEZ hilean; Gurutze Gorria (352,84 €), Radio Vitoria (326,70 €), Campezo Obras y Servicios S.A. (1904,20 €) eta Atabaka S.C. (3.475 €) taldeen zerbitzuak abeltzaintza-azokarako; Campezo Obras y Servicios S.A. herriko jaiak direla eta 2.941,44 €; Hidrocontrol S.L., hornidura kloratzeko mantentze-zerbitzuak egiteko 4.366,31 eurotan; IKUren kudeaketa, analisiak barne hartuta, 2.790,07 eurotan; R.S. Cercados S.L., Palatuko kirol-eremuaren iparraldeko mugan metalezko itxitura jartzeko, 6.503 €; Jardinería Integral Lober, Kontzejuen kaleetako sasiak kendu eta garbitzeko, 10.800 € gehi %10eko BEZ; Isidoro Beraza Viguri, 2018/19 ikasturtean trikitixa eta gitarra ikastaroak emateko; orduko 35 €; ARKE CONKA S.C.P., Domingo de Sautu kaleko 22. eta 38. zenbakietako eraikinen inguruko bi azterlan egiteko, etxebizitza sozial edo kultura-etxera zuzendu ahal diren aztertzeko aukerari buruz, 2.220na eurotan gehi BEZ; Forestales MUGARRI S.L., Kontzejuen kaleetako sasiak kendu eta garbitzeko, 8.266,50 € gehi %10eko BEZ, Excavaciones Rodo S. Coop. Ltda., Oroko oinezkoen zidorrak garbitu eta trinkotzeko, 9.830 € gehi BEZ; Sistemas Informáticos de Álava S.L., urtebetez Udaletxeko ekipo informatikoak mantentzeko, 1.951,90 € gehi BEZ; José A. Acebedo, 2018/19

Zuia, aprobación definitiva del PAU de la UE-1 de Guillerna/Gilierna, aprobación definitiva del Convenio Urbanístico de la UE-2 de Murgia, inicio de expediente de irregularidades urbanísticas por ejecución de obras sin licencia en la parcela 1310/1 de Altube, requerimiento a titular de la parcela 610/6 de Murgia para el mantenimiento del arbolado de la parcela que invade espacio público, concesión del licencia de ocupación de las obras de reforma de la cubierta del edifico situado en la C/Domingo de Sautu 24 en Murgia, adjudicación de contratos menores: de servicio del horario ampliado en el CPVO durante el curso 2018/19 en el precio de 6.316€/monitora/curo, la gestión de la biblioteca municipal por 1.275€ más el IVA al mes, servicios de la Cruz Roja (352,84€), Radio Vitoria (326,70€), Campezo Obras y Servicios S.A. (1904,20€) y Atabaka S.C. (3.475€) para la feria ganadera, Campezo Obras y Servicios S.A. para la realización de Murgia con motivo de las fiestas patronales por importe de 2.941,44€, Hidrocontrol S.L. para realizar servicios de mantenimiento de la cloración del abastecimiento por 4.366,31€ y la gestión de la UCV que incluye analísticas por importe de 2.790,07€, R.S. Cercados S.L. para realizar un cierre metálico en el lindero norte de la zona deportiva de Palatu por 6.503€, Jardinería Integral Lober la limpieza/desbroce de las calles de los Concejos por importe de 10.800€ más 10% IVA, Isidoro Beraza Viguri la impartición de clases de trikitixa y guitarra curso 2018/19 por importe de 35€/hora, a ARKE CONKA S.C.P. la realización de dos estudios de los edificios de la C/Domingo de Sautu 22 y 38 sobre posibilidad de destinarlos a viviendas sociales o casa cultura respectivamente, en el precio de 2.220€ cada uno de ellos más IVA, Forestales MUGARRI S.L. la limpieza/desbroce de los caminos de los Concejos en el precio de 8.266,50€ más 10% IVA, Excavaciones Rodo S. Coop.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

ikasturtean bateria irakasteko, orduko 35 eurotan; STIRPS DUERO S.L., 18.10.19an Hiru Handiak probaren irteerarako irudi eta soinuko unitate mugikorra, 1.239,66 € gehi BEZ. Jolas bio-osasungarriak erosi eta jartzeko lizitazioaren 2. gutun-azala - eskaintza ekonomikoa eta automatikoki baliozta daitezkeen irizpideak- irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna jartzea. Kontratu ireki sinplifikatuak esleitzea: OAMIP eta udalaren beste eraikin batzuetako UBS eta berokuntzako instalazioen mantentze-zerbitzua GIROA S.A.U. enpresari bi urtez, 10.470,00 € gehi BEZ prezioan; eta URBABIL S.L. enpresari, eremu publikoan trebakuntza eta mantentze fisikorako jolasak erosi eta jartzea, 31.994,39 eurotan. Murgiako Batzarrari baimena ematea herriko jaietan udalaren eremuak eta ekipamenduak erabiltzeko, eta Gorbeiako Basterra Mikologia Elkarteari Jai Alai pilotalekua mikologia-erakusketarako erabiltzeko. Urkabustaizko Udalari udalaren materiala lagatzea herri horretako IX. Azokarako. Lan, zerbitzu, zuzkidura, diru-laguntza eta udal-langileen iraileko soldatei dagozkien 15. eta 16. ordainketa-aginduen zerrendak (47.892,71 € eta 43.622,01 €, hurrenez hurren) onartzea. Udalerrian bizi ez diren pertsonen ofiziozko bajak udal-erroldan. Gehienezko diru-laguntzak ematea: Murgiako Batzarrari 5.000 € eta Domaikiakoari 2.450 €, biak ere jaietarako; Bitorianoko Administrazio Batzarrari 600 €, errota zaharberritzeko lanen lansari teknikoetarako; Murgiakoari 5.388,64 €, Kontzejuaren egoitza eraikitzeko proiektua idazteko eta 5.002,50 €, egoitza horretako altzariak erosteko; Ametzaga Zuiakoari 1.739,59 € edukiontzi-estalkien obretarako eta 653,40 €, Amezolako bidea konpontzeko; Sarriakoari 10.574,04 €, hainbat kale zolatzeko eta 2.042,63 €, herriko 2 lekutan 4 hodiz telekomunikazioen kanalizazioak egiteko; Domaikiakoari 756,29 €, Maisuen Etxeko kableak kentzeko; Giliernakoari 84,15 €, luberritzeen bidea garbitzeko;

Ltda. La limpieza/compactado de las sendas peatonales de Oro en el precio de 9.830€ más el IVA, Sistemas Informáticos de Álava S.L. el mantenimiento durante 1 año de los equipos informáticos del Ayuntamiento en el precio de 1.951,90€ más IVA, José A. Acebedo la impartición del instrumento de batería durante el curso 2018/19 en el precio de 35€/hora, STIRPS DUERO S.L. la unidad móvil de imagen y sonido para la salida de la prueba Hiru Haundiak del 19.10.18 por 1.239,66 € más IVA, señalización del acto público de apertura del sobre Nº 2 de la licitación del suministro e instalación de juegos biosaludables -oferta económica y criterios valorables automáticamente-, adjudicación de contratos abiertos simplificados del servicio de mantenimiento de instalaciones de calefacción y ACS del CPVO y otros edificios municipales durante dos años a GIROA S.A.U.. en el precio de 10.470,00€ más IVA y a URBABIL S.L. el suministro e instalación de juegos biosaludables de ejercitación y mantenimiento físico en espacio público en el precio de 31.994,39 €, autorización a la Junta de Murgia para la ocupación de espacios y equipamientos de titularidad municipal con motivo de las fiestas patronales, a la Asociación Micologíca Gorbeiako Basterra el frontón Jai Alai para la exposición micológica, cesión de material municipal al Ayuntamiento de Urkabustaiz con motivo de la IX Feria del citado municipio, aprobación de las relaciones de mandamientos de pagos Nº 15 y 16 referentes a obras, servicios, suministros, subvenciones y retribuciones del personal del Ayuntamiento del mes de septiembre por importes de 47.892,71€ y 43.622,01€ respectivamente, bajas de oficio en el padrón municipal de habitantes de personas que no viven en el municipio, concesión de subvenciones máximas para fiestas a las Juntas de Murgia por importe de 5.000€ y a la de Domaikia: 2.450€, subvenciones máximas a las Juntas Administrativas de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Jugokoari 741,73 €, Jugatxiko Ermitako erretena konpontzeko. Ametzagako Batzarrari herriko espaloiak beheratzeko lanen azterlan eta zuzendaritzarako diru-laguntza ukatzea, proiektua ez izateaz gain, ez delako lana egiteko eskatu. Vitoria-Gasteizko musika kontserbatoriora doan Zuiako bizilagunari eskola-garraiorako diru-laguntza ukatu izanari aurkeztutako errekurtsoa ez onartzea, ez direlako ez batxilergoko ez lanbide-heziketako ikasketak. DISPORT EKI S.L. enpresak bere egunean gazteleku eta ludotekako aisialdi-zerbitzua ematearen berme gisa utzitako fidantza kitatzea. 2/2018 kreditu gehigarriaren espedientea eta 2017ko ekitaldiko kontu orokorra behin betiko onartzea, jendaurrean jarri eta erreklamaziorik egon ezdenez Osoko Bilkuran hartutako erabakien arabera.

Bitoriano para honorarios técnicos de obras de restauración del molino por importe de 600€, de Murgia para la redacción del proyecto de construcción de la sede del Concejo 5.388,64€ y 5.002,50€ para el mobiliario de la citada sede, de Ametzaga Zuia para las obras de cubre-contenedores: 1.739,59€, y 653,40€ para reparar el camino de Amezola, Sarría para pavimentar diversas calles: 10.574,04€ y 2.042,63€ para ejecutar la canalizaciones de telecomunicaciones con 4 tubos en 2 puntos de la localidad, Domaikia para la retirada del cableado de la Casa Maestros: 756,29€, Guillerna/Gilierna para la limpieza del camino de las roturas: 84,15€, Jugo para el arreglo del canalón del a Ermita de Jugatxi: 741,73€, denegación a la de Ametzaga para el estudio y dirección de las obras de rebajes de aceras de la localidad porque además de no tratarse un proyecto no se ha exigido para ejecutar las obras, desestimación de recurso presentado por denegación de subvención al transporte escolar de un vecino de Zuia que acude al Conservatorio de música de Vitoria-Gasteiz al no tratarse de estudios de bachiller ni formación profesional, cancelación de la fianza depositada en su día por DISPORT EKI S.L. como garantía de la prestación del servicio de tiempo libre en club joven y ludoteca, aprobación definitiva del expediente de crédito adicional 2/2018 y de la cuenta general del ejercicio 2017 conforme a los acuerdos plenarios adoptados una vez que expuestos al público no se han presentado reclamaciones a los mismos.

Zehazteke zeuden bi ebazpen (272. eta 274. Dekretuak) honako hauen ingurukoak zirela azaldu da: Murgian familia bakarreko etxebizitzan terraza eta Bigilianoko eraikin bateko eskailerako argi-zuloa konpontzeko lan txikien baimenak.

Se concreta que las dos resoluciones que faltaban por concretar (Decretos 272 y 274) se referían a licencias de obras menores en Murgia para arreglo de terraza en vivienda unifamiliar y la claraboya de la escalera en edificio de Biguillano.

Udalbatza jakinaren gainean gertu eta Koadrilari ingurumen arloko laguntza

La Corporación se da por enterada y ratifica el decreto correspondiente a la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

teknikoko zerbitzuari eusteko eskabideari dagokion dekretua berretsi da.

**3.- POSTA OFIZIALA**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak: Kontzeju bakoitzeko populazioaren ziurtapena eskatu du; eta 2019ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planera aurkeztutako Murgiako Domingo de Sautu kaleko 22. zenbakiko eraikinak eta lursaila erosteko eskabidearen dokumentazio osagarria galdatu du.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak honako hauek jakinarazi ditu: 2017ko ekitaldiko BEZaren itzulketa, abuztuko derrigorrezko diru-bilketaren likidazioa 1.308 eurokoa izan dela, eta 2018ko EJZ matrikularen onarpena.

- Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak: Domingo de Sautu kaleko lanak gelditzeko eskatu du, onartutako proiektuarekiko hautemandako irregulartasunengatik; Lukiano, Aperregi eta Giliernako hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-proiektuan izapidetutako nahitaezko desjabetze-espedienteko okupazio-aktak bidali ditu.

- Ingurumen eta Hirigintza Sailak: Lukiano, Aperregi eta Gilieranoko hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-proiektuaren bigarren fasea bidali du; PIMA 2018 inguruan bidalitako diru-laguntzari buruzko dokumentazio osagarria eta materia organikoa bildu eta konpostajea ezartzea aurkeztutako dokumentazioaren azalpenak eskatu ditu; Bigilianoko 266, 267 eta 268 lursailen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa bidali du eta, ondoren, aipatu txostena egiten duen Foru Araua; arabar udalerrien HAPO egiteko prozedurari buruzko triptikoak bidali ditu; Lukiano eta Aperregiko guneak udal HUAra lotzeko

solicitud a la Cuadrilla para mantener el servicio de asistencia técnica en materia de medio ambiente.

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Álava:**

- Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial solicita certificación de población de cada uno de los Concejos, requiere documentación complementaria a la solicitud de compra de edificios y parcela de la C/Domingo de Sautu 22 en Murgia presentada al Plan Foral de Obras y Servicios 2019.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica la devolución del IVA del ejercicio 2017, informa liquidación recaudación ejecutiva agosto: 1.308 euros., informa aprobación de la matrícula del IAE/2018.

- Infraestructuras Viarias y Movilidad requiere paralización de las obras de la C/Domingo de Sautu por irregularidades detectadas respecto al proyecto aprobado, remite actas de ocupación del expediente de expropiación forzosa tramitado en el proyecto de saneamiento y depuración de aguas residuales de Lukiano, Aperregi y Guillerna.

- Medio Ambiente y Urbanismo remite el proyecto de saneamiento y depuración de aguas residuales de Lukiano, Aperregi y Guillerna-2ª fase, solicitan documentación complementaria sobre la subvención remitida sobre PIMA 2018 y aclaraciones de la documentación presentada para la implantación de recogida de materia orgánica y compostaje, remite informe ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana de las parcelas 266, 267 y 268 de Biguillano y posteriormente la Orden Foral que emite el citado informe, remite trípticos de procedimiento de elaboración de PGOU de los municipios alaveses, comunica la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

proiektua egiteko kontratuaren esleipena jakinarazi du.

- Miñoien Zerbitzuak, 2018.10.07an izango den XXVI. Abere Azokan lagunduko duela berretsi du.
- Kirol Sailak, udalaren kirol-instalazioei buruzko datuak berresteko eskatu du, errolda eguneratzeko.
- Gazteria Erakundeak, gazteriari zuzendutako ekintzen 2018ko dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko epea jakinarazi du.
- Nekazaritza Sailak, mendi publikoan artzaintzan aritzeko baimen-eskabideak aurkezteko epea gogorarazi du.
- Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, kultura-ekintzak garatzeko 2018ko dirulaguntzak justifikatzeko epea gogorarazi du.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Segurtasun Sailak, San Migel Saria txirrindularitza-probak baimendu dituela jakinarazi du.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Errepideen Plan Orokorra jendaurreko eta entzunaldiaren izapidea jakinarazi du.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak iraileko DSBE nomina bidali du.
- HAEEk, udalak eskatutako zuzenbide-lizentziadunen poltsa bidali du.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jakinarazi du, D. Sautu kaleko 69. Zenbakiko (lehen Talleres Zuia) lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura abiarazi duela.

**4.- 2019. URTERAKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ZERGA ORDENANTZAREN PROPOSAMENA**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, hurrengo urtean zerga eta prezio publiko guztiak (zabor-bilketa zerbitzuaren tasak izan ezik)

adjudicación del del contrato para ejecutar el proyecto de conexión de los núcleos de Lukiano y Aperregi a la EDAR municipal.

- Servicio de Miñones confirma su colaboración en la XXVI Feria de Ganado el próximo 07.10.2018.
- Deportes solicita confirmación de datos de instalaciones deportivas municipales para actualización del censo.
- Instituto de la Juventud comunica el plazo para presentar la justificación de la subvención de actividades dirigidas a la juventud 2018.
- Agricultura recuerda el plazo para presentar solicitudes de autorización de pastoreo en montes públicos.
- Euskera, Cultura y Deportes recuerda el plazo para justificar la subvención para el desarrollo de actividades culturales 2018.

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Seguridad comunica autorización pruebas deportivas ciclismo Premio S. Miguel
- Desarrollo Económico e Infraestructuras comunica el trámite de información pública y audiencia del Plan General de Carreteras.
- Empleo y Asuntos Sociales remite nómina RGI septiembre.
- IVAP remite listado de la bolsa de personas licenciadas en derecho solicitado por el Ayuntamiento.
- Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda comunican el inicio del procedimiento de declaración de la calidad del suelo en la zona de D. Sautu 69 (antiguos Talleres Zuia)

**4.- PROPUESTA ORDENANZAS FISCALES, TASAS Y PRECIOS PUBLICOS PARA EL 2019.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa, expone que la propuesta de EH-BILDU para el próximo año es congelar todos los tributos y precios

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

izozteko EH-BILDUk egindako proposamena azaldu du. Zabor-bilketa zerbitzuaren tasa dela-eta, Partzuergoak 2018rako bere egunean aurkeztutako zenbatekoak onartzea proposatu du (2017koak %10 igotzea litzateke), kontuan izanda udalak ez zituela horiek onartu, aurreko zenbateko batzuk baino, 2017an indarrean zeuden tarifen %6ko igoera onartu zelako, eta ez %10ekoa.

Sautu zinegotzi jaunak azaldu du musika-eskolako eta kirol-ekintzen tasak igotzearen aldekoa litzatekeela, baina gainerako zinegotziek desadostasuna azaldu dute.

Gobernu-taldearen proposamena bozkatu eta Udalbatzak, gehiengo osoz, hau da, Sautu zinegotzi jauna ez diren (abstenitu egin baita musika-irakaskuntzako tasa eta kirol-jardueren prezioak igotzeko egindako proposamenarekin koherente izanik) Udalbatzako gainerako kide guztien aldeko botoarekin, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Zerbitzuak eman eta Administrazio Ekintzak egiteagatiko Tasak arautzen dituen Ordenantzako 2. epigrafea, hots, Zabor Bilketaren Zerbitzua, ondoren zehazten diren tarifen araberako aldaketa behin-behinekoz onartzea:

**Zerbitzuak eman eta Administrazio Ekintzak egiteagatiko Tasak arautzen dituen Ordenantza**

**Eranskinaren epigrafea:**

**2.- Zabor Bilketaren Zerbitzua:**

públicos, salvo la tasa por el servicio de recogida de basuras, para la que propone aprobar las cuantías presentadas en su día por Consorcio para el año 2018 (que suponían un incremento del 10% sobre las del año 2017), teniendo en cuenta que el Ayuntamiento no aprobó las mismas, sino unos importes interiores, al haber aprobado un incremento del 6% sobre las tarifas vigentes el año 2017 en lugar del 10%.

El Concejal Sr. Sautu expone que sería partidario de incrementar las tasas de la escuela de música y actividades deportivas, manifestando su desacuerdo el resto de Concejales.

Sometida la propuesta del equipo de gobierno a votación, la Corporación por mayoría absoluta, con el voto favorable de todas las personas miembros de la Corporación excepto el Concejal Sr. Sautu que se abstiene, en coherencia con su propuesta de incrementar las tasas de enseñanza musical y los precios de actividades deportivas, ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar provisionalmente la modificación de la Ordenanza reguladora de Tasas por la prestación de Servicios Públicos y Realización de Actividades administrativas en su epígrafe 2.- Servicio de Recogida de Basuras, conforme a las tarifas que a continuación se detallan:

**Ordenanza reguladora de Tasas por Prestación de Servicios Públicos y Realización de Actividades Administrativas**

**Epígrafe del Anexo:**

**2.- Servicio de Recogida de Basuras:**

| | |
|---|---|
| Etxebizitzak | 73,76 euro |
| Lokal profesionalak | 73,76 euro |

| | |
|---|---|
| Saltokiak | 147,42 euro |
| Zerbitzuetako lokalak | |
| Altube Ostatua | 4.443,68 euro |
| Guardia Zibilaren Kuartela | 596,98 euro |
| Lanbide Heziketako Institutua | 176,56 euro |
| Karitateko Ahizpak (zaharra) | 176,56 euro |
| Zarateko Karmeldarrak | 176,56 euro |
| Markinako Landa Etxea | 176,56 euro |
| Sarriako Aterpetxea | 176,56 euro |
| Ostalaritza - Kirolak | |
| Txokoak | 206,46 euro |
| Tabernak eta Kafetegiak | 206,46 euro |
| Sardexka 1eko jatetxeak | 354,02 euro |
| Sardexka 2ko jatetxeak | 442,26 euro |
| Ostatuak - Landa-etxeak | 181,32 euro |
| Hotela | 181,32 euro |
| 20 plaza arteko Adinekoen Egoitza | 181,32 euro |
| 21 eta 40 plaza bitarteko Adinekoen Egoitza | 304,00 euro |
| 40 plazatik gorako Adinekoen Egoitza | 426,62 euro |
| Kirol-eremua | 610,76 euro |
| Gizarte Etxeak | 131,14 euro |
| Industria | |
| 500 $m^2$ arte | 163,10 euro |
| 501 eta 1.000 $m^2$ bitartean | 596,82 euro |
| 1.001 eta 3.000 $m^2$ bitartean | 914,64 euro |
| 3.001 eta 10.000 $m^2$ bitartean | 1.372,02 euro |
| 10.000 $m^2$-tik gora | 1.829,40 euro |

| | |
|---|---|
| Viviendas | 73,76 euros |
| Locales profesionales | 73,76 euros |
| Comercios | 147,42 euros |
| Locales de Servicios | |
| Hostal Altube | 4.443,68 euros |
| Cuartel de la Guardia Civil | 596,98 euros |
| Instituto de F. Profesional | 176,56 euros |
| HH. De la Caridad (viejo) | 176,56 euros |
| Carmelitas de Zárate | 176,56 euros |
| Casa Cural de Markina | 176,56 euros |
| Albergue de Sarría | 176,56 euros |
| Hostelería - Deportes | |
| Txokos | 206,46 euros |
| Bares Cafeterías | 206,46 euros |
| Restaurantes 1 tenedor | 354,02 euros |
| Restaurantes 2 tenedores | 442,26 euros |
| Hospederia – Agroturismo | 181,32 euros |
| Hotel | 181,32 euros |
| Residencia de Personas Mayores hasta 20 pl | 181,32 euros |

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

| | |
|---|---|
| Residencia de Personas Mayores de 21 a 40 plazas | 304,00 euros |
| Residencia de Personas Mayores más de 40 plazas | 426,62 euros |
| Zona Deportiva | 610,76 euros |
| Centros Sociales | 131,14 euros |
| Industria | |
| Hasta 500 m2 | 163,10 euros |
| De 501 a 1.000 m2 | 596,82 euros |
| De 1.001 a 3.000 m2 | 914,64 euros |
| De 3.001 a 10.000 m2 | 1.372,02 euros |
| Mas de 10.000 m2 | 1.829,40 euros |

BIGARRENA.- Espedienteak hogeita hamar egunez jendaurrean jartzea, iragarkia ALHAOn eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuz. Epe horretan zehar egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesatuek.

SEGUNDO.- Exponer el expediente al público por el plazo de treinta días, mediante anuncios publicados en el B.O.T:H.A. y en el tablón de edictos del Ayuntamiento durante los cuales podrán l@s interesad@s presentar cuantas reclamaciones estimen pertinentes.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik egon ezean erabaki hau behin betikotzat jotzea eta, egotekotan, beste erabaki bat hartzea.

TERCERO.- Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

LAUGARRENA.- Behin betiko erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.

CUARTO.- Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentarios.

BOSGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**5.- LARRE KOMUNEN ORDENANTZA.**

**5.- ORDENANZA DE PASTOS COMUNES.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, larre komunak arautzen dituen Ordenantza onartzea proposatu du, erabilera publikoko 734. mendira mugatuz; Baranbio eta Zigoitikoaren antzeko ordenantza da; artzaintzarako datak, abere-motak eta onuradunen betebeharrak ezarri dira.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa propone aprobar la Ordenanza reguladora de los pastos comunes, ciñéndonos al monte de U.P. 734; es una ordenanza similar a la de Barambio y Zigoitia; se establecen fechas de pastoreo, tipología de ganadeo, requisitos de los beneficiarios.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Sautu zinegotzi jaunak, proposatutako araudiarekin ados egonda, atseden-garaian nola kontrolatuko den galdetu du, Bizkaikoek arabar eremuan askatzen zutelako ganadua eta parkeak kontrolatuko duen galdetu du. Alkateak erantzun dio Udalak eta Aldundiko Nekazaritza Sailak egingo dutela: inork denboralditik kanpo ganadua dagoela salatu bezain pronto, hamabost egunez atxiki eta titularrari jasotzeko jakinaraziko zaio.

El Concejal Sr. Sautu, estando de acuerdo con la normativa que se propone, pregunta cómo se llevará el control en la época de descanso, porque los de Bizkaia solían soltar el ganado en la zona alavesa y pregunta si lo controlará el parque, contestándole el Alcalde que se llevará a cabo entre el Ayuntamiento y Agricultura de Diputación: en cuanto alguien denuncie la presencia de ganado fuera de temporada se retendrá el mismo durante quince días y se le comunicara al titular para que lo recoja.

ZBG/ZNU taldea: Alonso zinegotzi jaunak Ordenantzaren inguruan xehetasun bat azaldu eta honakoa esan du:

*"Egoki eta beharrezkoa ikusten dugu mendiko artzaintza arautzen duen araudia, baina batzordeetan esan dugun legez, Haraneko Kontzejuekin koordinatuta egin behar zela uste dugu, mendien katalogoaren arabera, Zuiako haraneko herri guztiena den 734. mendiaren arautzea delako, eta gainera, horietan kontzejuen jabetzakoak diren larre erantsiak barne hartuta daudelako.*
*Horregatik abstenitu egingo gara eta sakonago jorratu beharreko egoera litzateke honako hau, 734. mendiaren jabetzari buruzko arazoa konpontzen saiatzeko."*

Grupo ZBG/ZNU: El Concejal Sr. Alonso hace una matización respecto a la Ordenanza y dice:

*"Vemos bien y necesaria la ordenación que regula el pastoreo en el monte, pero como ya hemos indicado en las comisiones, entendemos que tendría que haber sido elaborada en coordinación con los Concejos del Valle, al tratarse de una regulación del Monte 734, propiedad, de acuerdo al catálogo de montes, del Común de los pueblos del valle de Zuia, e incluso, estando en el comprendidas las dehesas agregadas, propiedad de los concejos. Es por ello por lo que nos vamos a abstener y esta sería una situación más a abordar, en un intento por llegar a una solución al problema de la propiedad del Monte 734."*

Proposamena bozkatu eta Udalbatzak, gehiengo osoz, hots, EH-BILDU (4), EAJ/PNV (2) eta PP (1) taldeetako zinegotzien aldeko botoarekin eta ZBG/ZNUkoen (3) abstentzioarekin ondorengoa ERABAKI DU:

Sometida la propuesta a votación, la Corporación por mayoría absoluta, con el voto favorable de los Concejales de EH-Bildu (4), EAJ/PNV (2) y PP (1) y la abstención de ZBG/ZNU (3), ACUERDA:

LEHENENGOA.- Erabilera publikoko 734. mendiko larre komunak arautzen dituen Ordenantza hasiera batez onartzea, erabaki honen amaieran zehazten denaren arabera.

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de pastos comunes en el monte de U.P. 734 conforme se detalla al final de este acuerdo.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzuteko aukera ematea ALAHOn eta Udaletxeko iragarki-oholean hogeita hamar iragarkiak jarriz, erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados mediante anuncios en el BOTHA y tablón de edictos del Ayuntamiento por el plazo de treinta días para reclamaciones y sugerencias.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik egon ezean erabaki hau behin betikotzat jotzea eta, egotekotan, beste erabaki bat hartzea.

TERCERO.- Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones ni sugerencias y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

LAUGARRENA.- Behin betiko erabakia eta Ordenantzaren testua ALHAOn eta Udaletxek iragarki-oholean argitaratzea.

CUARTO.- Publicar el acuerdo definitivo junto con el texto de la Ordenanza en el BOTHA y tablón de edictos del Ayuntamiento.

BOSGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

## ONURA PUBLIKOKO MENDIETAKO LARREEN APROBETXAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

### 1. ARTIKULUA. ARAUTEGIAREN XEDEA ETA EREMUA

Ordenantza honen xedea da Zuiako udalerriko onura publikoko mendietan dagoeneko sortuta dauden eta sortu ahal diren larreen aprobetxamendua eta gozamena arautzea. Edonola ere, ordenantza honen garapenean udalak hartzen dituen erabakiek mugatutako eremuetan baino ezingo da larratu, eta udalak esanbidez adierazitako denbora tartean baino ez. Inguruabarrek eskatuta, baldintza horiek aldatu ahal izango dira. Zuiako Udalak larreen aprobetxamendua baimendu ahal izango du ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan, mendiak eta larreak antolatzeko planean

## ORDENANZA REGULADORA DEL APROVECHAMIENTO DE PASTOS EN MONTES DE UTILIDAD PÚBLICA

### Artículo 1.- OBJETO Y ÁMBITO DE ESTE REGLAMENTO

El objeto de esta ordenanza es el de regular el aprovechamiento y disfrute de los pastos existentes y de nueva creación, situados en Montes de Utilidad Pública en el municipio de Zuia. En todo caso el pastoreo se deberá ejercer en las áreas delimitadas por acuerdo municipal en desarrollo de la presente Ordenanza y durante el periodo que expresamente se indique y que serán modificadas por el propio Ayuntamiento cuando las circunstancias así lo aconsejen. El Ayuntamiento de Zuia podrá autorizar el aprovechamiento de los pastos en los términos que establece la presente ordenanza, en el plan de ordenación de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

ezarritakoaren arabera eta, bereziki, Plan horren V. tituluan xedatutakoaren arabera, zeina berariaz garatzen baita Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzen dituen martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan. Horri dagokionez, mendietan egiten den artzaintza, mendiak zaindu eta hobetzearekin bateragarria izan beharko da, eta ahalegina egin beharko da dauden larreak antolatzeko eta hobetzeko, baita handitzeko edo aldatzeko ere, baina baso masei kalterik eragin gabe. Zuhaitzez betetako mendietan, basoen beharrek lehentasun osoa izango dute, eta artzaintza mugatu ahal izango da argi eta garbi ikusten bada kaltegarria dela erabilera edo zaintzarako, eta debekatu ere egin ahal izango da helburu horiekin bateragarria ez bada.

**2. ARTIKULUA. LARREEN IDENTIFIKAZIOA**

Jarraian zerrendatzen dira abereen bazkarako larre gisa aprobetxatu ahalko diren eremuak, betiere, arautegi honetan edo Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan (apirilaren 13ko ALHAO, 44 zk.) ezarritako xedapenak beteta. Larre guztiak 1. eranskinean identifikatzen dira. Hona hemen zerrenda:

- Onura publikoko 734 mendia.

Azalera hori urtero adieraziko da eskaerak aurkezteko epea zabaltzean, eta aldaketak edo aldarazpenak izan ditzake, Udalak egindako kudeaketaren edo azterlanen arabera.

**3. ARTIKULUA. ONURADUNAK**

Larreen aprobetxamendua eska dezakete honako pertsona edo entitate hauek:

a) Zuiako herritarrek, edo Zuiako Udalaren barrutian legez eratuta dauden eta egoitza bertan duten abeltzainen elkarteek,

montes y/o de pastizales y siempre de acuerdo con el Título V y especialmente desarrollado a su vez, en el Capítulo Quinto de la Norma Foral Reguladora de los Montes del Territorio Histórico de Álava 11/2007 del 26 de marzo. A tal efecto, el pastoreo en los montes se realizará en forma que sea compatible con la conservación y mejora de los mismos, procurando la ordenación y perfeccionamiento de pastos existentes incluso su ampliación y/o modificación, sin menoscabo de las masas boscosas. En caso de montes cubiertos de arbolado se dará preferencia absoluta a las exigencias selvosas, pudiéndose limitar el pastoreo cuando resultare claramente perjudicial para su uso o conservación e incluso prohibirlo cuando resultase incompatible con dichos fines.

**Artículo 2.- IDENTIFICACIÓN DE LOS PASTIZALES**

Las áreas en las que podrá ejercerse el aprovechamiento de sus pastos, cumpliendo las prescripciones de este Reglamento o la Norma Foral Reguladora de los Montes del Territorio Histórico de Álava (Numero 11/2007 de 26 de marzo, publicada en el BOTHA nº 44, el 13 de abril), y que se identifican gráficamente en el anexo 1, son las siguientes

- MUP 734

Esta superficie se declarará anualmente cuando se realice la apertura de solicitudes y puede acogerse a cambios o modificaciones en función de la gestión y los estudios que este Ayuntamiento desarrolle.

**Artículo 3.- PERSONAS BENEFICIARIAS**

Podrán solicitar el aprovechamiento de pastos las siguientes personas o entidades:

a) Los/as vecinos/as y/o Asociaciones ganaderas legalmente constituidas cuyos miembros cumplan individualmente los requisitos necesarios y

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

kide bakoitzak behar diren baldintzak betetzen baditu.

b) Ohiko larre eskubideak dituzten udalerrietako ustiapenek, betiere udalerriko herritarren eskaerekin abereen karga gainditu ez bada.

c) Udal honekin gai horren inguruan akordioak sinatu dituzten udalerrietako biztanleek, betiere udalerriko herritarren eskaerekin abereen karga gainditu ez bada.

Den-denek bermea eratu beharko dute (martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 36. artikulua) larre sistemari edo baso eta larre sistemari kalteak eragin diezazkioketen artzaintza baldintzak baimentzen direnean, esaterako, neguko artzaintza eta abar. Herri larreei eta hara iristeko bideei eragin lekizkieken kalteen eta arriskuen peritu azterlan xehakatu baten bidez zehaztuko da berme horren zenbatekoa, kontuan hartuta baldintza horietan dauden banakako eskaerak. Teknikari gaitu batek idatzi beharko du azterlan hori.

**4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEKIZUNAK**

Onuradunek jarraian zerrendatzen diren betekizunak bete behar dituzte eta dokumentu bitartez egiaztatu beharko dituzte eskaera aurkezteko unean:

a) Adin nagusikoa izatea, adingabe emantzipatua izatea edo lege gaitasuna duena, eta abeltzaintzan lan egitea, norberaren lurrak landuz larre laborantzekin.

b) Ustiapena udalerrian izena emanda izatea, gutxienez urtebetez, eta, gainera, Udalaren erroldan sartuta egotea. Hala ere, abeltzain gazteen kasuan, antzinatasun eskakizuna salbuetsi ahalko du Udalak.

c) Udalarekiko zergen eta tributuen betebeharrak beteta eta eguneratuta izatea.

con su sede en el término municipal del Ayuntamiento de Zuia

b) Las explotaciones de municipios que tengan derechos tradicionales de pasto, siempre que no se haya superado la carga ganadera con las solicitudes de los vecinos del municipio.

c) Los/as vecinos/as de municipios que hayan suscrito acuerdos en la materia con este Ayuntamiento, siempre que no se haya superado la carga ganadera con las solicitudes de los vecinos del municipio.

Todos/as ellos/as deberán constituir fianza (art. 36 de la Norma Foral de Montes 11/2007 de 26 de marzo) cuando se autoricen condiciones de pastoreo que puedan implicar riesgo de daños al sistema pascícola o silvopascícola, como pueda ser el pastoreo invernal, etc.,... La cuantía de la fianza vendrá determinada por el estudio pericial pormenorizado de los posibles riesgos y daños a los pastos comunales y pistas de acceso atendiendo a cada solicitud individual que se encuentre en estas condiciones y redactado por personal acreditado.

**Artículo 4.- REQUISITOS DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS**

Las personas beneficiarias deberán reunir los siguientes requisitos que habrán de ser acreditados documentalmente en la presentación de la solicitud:

a) Ser mayores de edad o, menor emancipado/a o judicialmente habilitado/a y dedicarse a la ganadería, trabajando tierras propias con carácter pascícola.

b) La explotación este inscrita en el municipio, con una antigüedad mínimo de un año y además hallarse incluido en el censo del Ayuntamiento, salvo que se trate de jóvenes agricultores en cuyo caso el Ayuntamiento podrá excepcionar el registro de antigüedad.

c) Estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones fiscales y tributarias del Ayuntamiento.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

d) Hazienda edo abeltzaintza funts baten titular izatea eta Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Ustiaketen Erregistroan egotea.

e) Auzokide den herrian abere horientzat lursail eta ukuilu nahikoa izatea behar den denboran zehar. Lursail edo ukuilu horiek teknika zein ingurumen aldetik egokiturik egongo dira (agiri bidez frogatuko da), bai eta bertan egoteko modukoa eta bazka baliabideen bidez elikatzeko modukoa, ondorengo arrazoiengatik mendian egoterik ez denean: larre aprobetxamendua egiteko espezieak gelditzeagatik, osasun aldetiko koarentena egoteagatik, mendiaren egoera txarragatik edo mendian egotea eragozten beste edozein arrazoi batengatik. Salbuespen gisa, onartu egin daiteke abelazkuntza ustiategia udalerrian ez egotea, betiere, baldintza hauek betetzen baditu:

* Ukuiluratu beharreko abereak gehienez 12 ordutan mugitzeko moduko eremuan egotea.

* Titularra udalerrian erroldatuta egotea.

* Erabateko denbora eskuragarritasuna abeltzaintzarako eta abelburu kopururako. Titularrak egiaztatu beharko du larreratzeko eskubidea duten abereen presentzia, gobernua eta kudeaketa aipatutako instalazioetan.

f) Saneamendu kontrolari eta abereen mugimenduei dagokienez indarrean dagoen arauditik eratortzen diren betebeharrak betetzea.

g) Udalak larreen aprobetxamendurako ematen duen baimena aurretik eskuratu izana.

h) Baso berritzerako eta lehengoratzeko jarri diren itxiturak errespetatzea, bai eta suteen ondorioz hesitutako azalerak ere.

i) Norberak lurra lantzea eta abereak zaintzea, bakarrik edo titularrarekin bizi

d) Ser titulares de una hacienda o fundo ganadero y estar inscrito en el registro de Explotaciones ganaderas de la Diputación Foral de Álava.

e ) Disponer por el tiempo necesario y de manera documentalmente demostrable, de terreno y/o alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para ese mismo ganado, sito en la localidad de la que sea vecino y que permita la estancia y alimentación del mismo con recursos forrajeros propios durante los periodos inhábiles para la estancia en el monte, sea por razones de paralización vegetativa de las especies de aprovechamiento pascícola o por motivos de cuarentena sanitaria, por el estado físico del monte, o por cualquier otro motivo que permita dicha estancia. De forma excepcional y previa autorización del Ayuntamiento se puede admitir que la explotación ganadera no se encuentre en el municipio siempre que reúna las siguientes condiciones:

* Que esté situado en un radio que permita la movilización del ganado a estabular en un tiempo máximo de 12 horas.

* El titular este empadronado en el municipio.

* Disponibilidad temporal plena para la actividad ganadera y número de cabezas de ganado. El titular deberá acreditar, la presencia, uso y manejo del ganado, acogido al derecho a pasto en dichas instalaciones.

f) Cumplir las exigencias derivadas de la normativa vigente en lo referente a control de saneamiento y movimiento pecuario.

g) Haber obtenido la autorización para el aprovechamiento previamente a proceder al aprovechamiento de pastos.

h) Respetar los cierres dispuestos para forestación y regeneración, así como las superficies acotadas tras incendios.

i) Cultivar la tierra y atender al ganado directa y personalmente por sí, o

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

diren senideren baten laguntzarekin, edo soldatapeko langileak erabilita.

Eskuragarri dauden larre guztiak erabiltzen ez badira, Udalak erabili gabe geratu direnen aprobetxamendua esleitu ahalko du gorago azaldu diren betebeharrak betetzen dituzten abeltzainen arteko lehiaketa bidez, herrian erroldatuta egotearen betebeharra alde batera utzita. Lehiaketan lehentasuna izango dute:

* Auzotasunaren hurbiltasuna.
* Abeltzain gazte izatea.
* Jarduera nagusia ustiategiarena izatea.

Kasu horretan, aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko kanona gutxienez urtero finkatzen den kuotaren 1,5 bider gehiagokoa izango da. Hala ere, ez badira larre guztiak esleitzen, Arabako Foru Aldundiak erreserbatuta dauka aprobetxamenduaren gaineko eroslehentasun eskubidea, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan adierazita dagoen moduan. Ez bada hala gertatzen, hau da, abereak larreetara sartzeko eskaerek abere zama onargarria gainditzen badute, Udalak mugatu egingo du larre bakoitzean onar daitekeen abelburu kopurua, eta lehentasuna emango die jarduera nagusia abeltzaintza duten abeltzainei, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan adierazitakoari jarraiki. Irizpide teknikoen, ingurumenekoen eta sozialen arabera finkatutako moduluak hartuko dira kontuan abelburu kopuru horiek ezartzeko.

Halaber, betekizunak betetzen dituzten eskaerekin lortutako abelburu zama nahikoa ez bada, kasu hauek aztertu eta baloratuko dira Jarraipen Batzordean:

* Aurreko betekizunak bete ez arren, Zuiako udalerrian behi, zaldi, ardi edo ahuntz abeltzaintza ustiategi bat duten pertsonak.

* Hitzarmenak dituzten eta udalerriko eremuan soilik jarduten ez duten elkarteak edo erakundeak.

con la ayuda de familiares que convivan con el titular, o con personas asalariadas.

En caso de que no se cubriera la disponibilidad de pastos, el Ayuntamiento podrá adjudicar dicho aprovechamiento mediante concurso entre los/as ganaderos/as que reúnan los requisitos anteriormente descritos, salvo el del empadronamiento en la localidad y se primará:

* La proximidad de la vecindad.
* La condición de joven ganadero.
* La de explotación a título principal.

